

20 **Zapatua**
Artza frontoian
20:00etan

PILOTA FESTIBALA

III. BERMEO HIRIA INPESCA-ATUNLO

Binaka:

Larrazabal-Morgaetxebarria/Alberdi II-Iztueta
Artola-Mariezkurrena II/Laso-Albisu

Sarrera salmenta: uztailaren 15etik 19ra leihatilan bertan
18:00etatik 19:00etara

*Antolatzaileak: **Bermeoko Udala, Inpesca eta Artza pilota alkarteak***



21 **Domeka**

JAIAK

MADALEN BEZPERA: BAZTARRE KALEKO JAIAK

BAZTARREN

10:00 - 11:00: Txokolatadea

11:00etan: Umeentzako ikuskizuna ADABAKI Bapatean zirko taldea

Ostean: umeentzako jolasak

19:30ean: Kankinkabara txistu taldearen kalejira

Ondoren: Kanta Kanta Lorue taldearen kalejira, 19:30ean Goiko
Plazatik urtenda. Baztarren egingo dabe geldialdia.

22:00etatik aurrera: Rock kontzertuak

*Antolatzaileak: **Baztarreko auzo alkarteak eta Bermeoko Udala***



MADALEN EGUNA

Goizean: Kalejirea Kankinkabara txistu taldeagaz Alde Zaharrean

11:45: Udalbatza Sabino Arana enparantzan batuko da eta porturantz joango da Kankinkabara Txistu Taldeagaz kalejiran.

Txistulariek Madalen zortzikoa joko dabe.

12:00: Itsasontzietara igo, Izarora joateko.

Ondoren, ikurrina eta Bermeoko bandera jaso Izaron eta gero teilea jaurti uretara.



12:30etik 15:00etara: TABERNA IBILTARIA Bermeoko herriko kaleetan.

13:30ak inguruan: Elantxobera heldu eta Alkartasuna dantza taldekoek ohorezko aureskua egingo deutsee agintariei (Bermeo, Elantxobe eta Mundakako alkateei) Elantxobeko plazan, Kankinkabara txistu taldeagaz.

17:30: Udalbatzak Elantxobetik urten Mundakara joateko.

19:30: Bermeora heldu eta Udalbatza Goiko Plazarantz igoko da "Betijai" fanfarreagaz, banderak altxatu eta auresku eta zabaletakoak egiteko.

Ondoren: "Betijai" fanfarreagaz beherakadea San Migeleko eskaileretaraino

20:00-00:00: Puntu Morea Portuzarrean

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Etorri Udalbatzagaz Madalen egunean!

- Zozketan parte hartzeko uztaillaren 1etik 12ra arte (14:00etara arte) izena emon behar da Bermeoko Udalaren egoitza elektronikoaren bitartez www.bermeo.eus edo Berhaz bulegoan (Ertzilla kalea 6-8). Ordutegia: astelehenetik barikura, 08:00-14:30

- Izena emoteko 18 urte euki eta Bermeen erroldatuta egon behar da.

- Banaka edo bikoteka emon daiteke izena.

- Aurreko urteetan joan diranek ezin izango dabe parte hartu.

Zozketa uztaillaren 16an egingo da eta zerrenda udalaren webgunean (www.bermeo.eus) argitaratuko da uztaillaren 18an.